



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

UDA IKASTAROA

HAUTESKUNDE-SISTEMAK XXI. MENDEAN

Hauteskunde sistemei buruzko hausnarketa izan nahi du Eusko Legebiltzarrak 2019ko Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroetan antolatu duen hau. Hauteskunde sistemak ditugu hizpide, zentzu zabalean hartuta. Ez dugu egin nahi izan azaleko hausnarketa bat, adarretatik joango dena, gaiak duen garrantziari eta gure errealitateei atxikitakoa baizik.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak adierazten du "pertsonek orok duela bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeratutako ordezkarien bitartez". Horren ondorioz, Nazio Batuen Erakundea murgilduta egon da hauteskunde-laguntzaren esparruan, 1945ean sortu zenetik, eta gainera lanean aritu da demokraziaren eta eskubide politikoen printzipioak ezartzeko eta sustatzeko.

Izan ere, hauteskunde-sistema on bat ezartzeak benetako demokrazia baten oinarriak jartzen ditu, eta horregatik, hain zuzen ere, Nazio Batuen Erakundearen hauteskunde-lana sarritan lotuta dago bakea eraikitzeko eta bakea mantentzeko operazio batzuekin, hala nola Kanbodian, El Salvadorren eta Mozambikenean eta, duela gutxi, Afganistanen eta Iraken.

Hau da, hauteskunde-sistema bat, kutsu nahiko azalekoak duten hausnarketa batzuk baino askoz ere harago, balizko onurak nori egiten dion besterik kontuan hartzen dutenak, enborreko tresna bat da demokrazia parte-hartzailean. Demokrazia ordezkatzailerak egituratzen duen oinarria da, gizarte modernoetan demokraziaren modu eraginkorra.

Hauteskunde-sistema baten diseinuak modu nabarmenean lagun dezake herritarren parte-hartzea bultzatzen eta beharizan eta itxaropen guztiei erantzuteko gai diren ordezkari legitimoen sorrera ahalbidetzen, bai etorkizunari begira, bai berehala. Baina diseinu txar batek aurrerapen demokratikoaren prozesu bat oztopatu dezake, eta are egonkortasun politikoa mehatxatu ere. Eta, aldi berean, eta eraikuntza demokratikoaren prozesuak alde batera utzita, hauteskunde-sistema on bat gakoa izan daiteke hainbat gai garrantzitsutarako, hala nola genero-ordezkaritza, beste gai askoren artean.





Horrez gain, arrakastatsuak izateko, hauteskunde-sistemen diseinu-prozesuek elkar-ulertzea eta konfiantza sorrarazi behar dituzte, ez bakarrik politikarien eta hauteskunde-administratzaileen artean, baizik eta gizarte zibilaren antolakundeen artean, analisten artean, baina batez ere herritarren artean; izan ere, hauteskunde-sistemek demokrazia egonkor bat garatzen lagun dezakete edo, bestela, demokrazia oztopatzen duten dike bihurtu.

Gizarte batean horrenbesteko garrantzia duen zerbaitek azterketa lasai eta sosegatu bat merezi du, eta hori hausnarketa eta lan doktrinaletik lor daiteke, gehien bat. Horrexegatik bildu ditugu bi egun hauetan hainbat espezialista, gai hau ikuspegi eta iritzi ezberdinetatik jorratuko dutenak. Eta horrekin batera, egungo egoerei buruzko analisia eta eztabaida. Jardunaldi honek debatea sustatzeko balioko digu eta aztergaiari buruzko iritzi askoz ere aberatsago eta sakonago bat ekarriko du, ziur naiz.

CURSO DE VERANO

SISTEMAS ELECTORALES EN EL SIGLO XXI

Estas jornadas organizadas por el Parlamento Vasco en los Cursos de Verano de la EHU-UPV 2019 pretenden ser una reflexión sobre los sistemas electorales. Desde una visión global, en el sentido más amplio, pero al mismo tiempo, una reflexión que no esté alejada de la realidad, por irse por las ramas, sino estrechamente ligada a nuestro contexto, diverso por otra parte.

La Declaración Universal de los Derechos Humanos afirma que “toda persona tiene derecho a participar en el gobierno de su país, directamente o por medio de representantes libremente elegidos”. Por consiguiente, la Organización de las Naciones Unidas ha estado involucrada en el campo de la asistencia electoral desde su fundación en 1945, trabajando para establecer y promover los principios de la democracia y los derechos políticos.





Efectivamente, el establecimiento de un buen sistema electoral asienta los cimientos de una auténtica democracia, y es por ello que el trabajo electoral de la ONU está con frecuencia asociado con operaciones de construcción y mantenimiento de la paz, como en Camboya, El Salvador y Mozambique y, más recientemente, en Afganistán e Iraq.

El sistema electoral es la base sobre la que se articula la democracia representativa, la forma más eficiente de democracia en las sociedades modernas. Es decir, un sistema electoral, es una herramienta troncal en una democracia participativa: va mucho más allá de consideraciones hipotéticas sobre a quiénes puede beneficiar o perjudicar.

El diseño de un sistema electoral puede contribuir de manera significativa a alentar la participación popular. Si el diseño es bueno, surgirán representantes legítimos capaces de atender diversas necesidades y expectativas, tanto a futuro como de manera inmediata. Pero un mal diseño también puede obstruir un proceso de avance democrático e incluso amenazar la estabilidad política. Y, además, un buen sistema electoral puede ser clave para cuestiones tan importantes como la representación de género, entre otras cuestiones fundamentales.

Resulta evidente que para ser exitosos, los procesos de diseño de sistemas electorales deben generar comprensión y confianza, no sólo entre los políticos y administradores electorales, sino entre las organizaciones de la sociedad civil, entre analistas, pero sobre todo entre la ciudadanía, porque, en realidad, los sistemas electorales pueden contribuir al desarrollo de una democracia.

Algo que es de tanta importancia en una sociedad merece un análisis en reposo y sosiego que únicamente puede conseguirse desde el trabajo doctrinal. Es por ello que hemos reunido en estas dos jornadas a especialistas que abordarán el tema desde diferentes perspectivas y opiniones. Y junto a ello, el análisis y el debate sobre nuestra realidad presente. Todo lo cual, estoy convencida, fomentará el debate y redundará en una opinión mucho más rica y profunda sobre la cuestión.

2019/07/08

BAKARTXO TEJERIA OTERMIN

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria

